



AGINDUA, JAURLARITZAKO LEHENENGO LEHENDAKARIORDE ETA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN AZAROAREN 26KO 389/2024 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DUENA.

2025eko abuztuaren 8ko Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Aginduaren bitartez *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretua* aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea agindu zen.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen 15.1 artikulua dioenez "Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik".

Horrenbestez, egindako dekretu-proiektuaren testua ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretua* aldatzeko dekretu-proiektua alde aurretik onartzea.

Bigarrena.- Agindua onartzearen ondorioetarako, Hasiera Aginduan eta *Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legean* ezarritako izapideen arabera, agindu-proiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea.

Vitoria-Gasteizen,

**Jaurlaritzako lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA**

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

